



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.net

Espediente zk.: 2017IKTH0001
Azalpena: 5 etxebizitzetarako sukalde-altzarien eta etxetresna-elektrokoen horniketa eta instalazioa

1029/2017 Dekretua, irailaren 19ako, udal titulartasuneko 5 etxebizitzaren etxetresna elektrikoak eta sukaldeko altzariak hornitzeko eta muntatzeko esleipenari buruzkoa

Ikusirik 2017ko apirilaren 26ko udal osoko bilkurak 6 etxebizitzaren lagapena onartu zuela, hain zuzen, Britac Proyectos SL sustapen enpresak Kontxa Etxeberria 7, 8 eta 9 atarietan eskainitakoak.

Ikusirik 2017ko ekainaren 13an, etxebizitza horien eskritura publikoa sinatu dela Ana Isabel Jaurrieta Alegria notarioaren aurrean.

Ikusirik aipatu 6 etxebizitzak sukaldea hornitu gabe dutela, eta udalak alogera sozialarentzako erabili nahi dituzenez, ezinbestekoa dela horiek hornitzea.

Ikusirik horietako etxebizitza bat mugikortasun murriztuko bizilagun batentzat egokitu behar denez, sukaldean zozketa egin eta etxe horren erabiltzailearen beharrak jakin arte, azken sukalde hori ez muntatzea erabaki dela.

Ikusirik ekainaren 13ko 672/2017 dekretuan esleipena izapidetza arrunta eta prozedura irekiaren bidez egitea xedatu zela, eta baita lizitazioaren deialdia kontratatzailearen perfilean eta GAO-n argitartzea.

Ikusirik eskaintzak aurkezteko epean bi enpresa aurkeztu direla, hain zuzen, Iturria Industrial SL eta Gurutzeta SL enpresak. Baina, lehendabizikoak ez duela aurkeztu A gutunazalean eskatzen ziren agiri guztiak, eta ondorioz ez duela egiaztatu lizitazioan parte hartzeko ahalmen eta kaudimen nahiko duela; eta bigarrenak, berriz, ez duela egiaztatu kaudimen nahiko duela.

Kontuan harturik Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 170 artikuluan arautzen duela, esleipena prozedura negoziatuaren bidez orokorrean zein kasuetan egin daitekeen, besteak beste, kasu hau jasoaz:

*c) Prozedura ireki edo murriztu bat aplikatu ondoren eskaintzarik edo hautagairik aurkeztu ez denean, **edo eskaintzak egokiak ez direnean**, betiere kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira.*

Kontuan harturik kontratu honen zenbatekoa 20.000 eurokoa dela, eta aipatu lege-xedapenak horniketa-kontratuak prozedura negoziatuaren bidez noiz egin daitekeen 173. artikuluan xedatzean, "f" atalean honako hau jasotzen duela:

*f) **Beti jo ahal izango da prozedura honetara, balio zenbatetsia 100.000 euro baino txikiagoa bada.***



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.net

Kontuan harturik lege-xedapen horren 177.2 artikuluari jarraiki kontratuaren balioa 60.000 eurokoa baina handiagoa ez bada, esleipena publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez egiterik dagoela.

Kontuan harturik 2017ko irailaren 19ko kontratazio-mahaiak erabaki duela lehiaketa hutsik gabekoa jotzea eta kontratazio-espeditente berri bat izapidetzea publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

Kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Sektore publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateraginarekin Bigarren xedapen gehigarria jarraiki, kontratu honen zenbatekoaren arabera, esleipena alkateari dagokiola, baina Astigarragako kasuan, 73/2017 Dekretuan, 62.000 eurotik beherako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea, Juan Martín Arregui Sagües kontrataziorako zinegotzi delegatuaren esku utzi dela.

XEDATZEN DUT

Lehena.- Prozedura arrunteko lehiaketa hutsik gabeko jotzea, aurkeztutako enpresa batek ez dituelako ahalmen eta kaudimena egiaztatzeako agiri guztiak aurkeztu; eta besteak, berriz, kaudimena egiaztatzeakoak.

Bigarrena.- 5 etxebizitzaren etxetresna elektrikoak eta sukaldeko altzariak hornitzeko eta muntatzeko kontratazio-espeditente berri bat izapidetzea, eta oraingoan, esleipena publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez egitea.

Hirugarrena.- Prozedura mota berri honetan, prozedura arrunterako onartutako baldintza tekniko berdinak erabiltzea, eta ahalmena eta kaudimenari dagokionez, baldintza berdinak eskatzea.

Laugarrena.- Lizitazioan parte hartzeko hiru enpresei gonbidapena egitea, hain zuzen, lizitazio irekian parte hartu duten bi enpresei eta iaz udalaren etxebizitzaren etxetresna elektrikoak eta sukaldeko altzariak hornitu eta muntatu zuen enpresari, hau da, gonbidapena enpresa hauei egitea: Iturria Industrial SL, Gurutzeta SL. eta Eder Haltzariak SL.

Astigarragan, 2017ko irailaren 19an.

Juan Martín Arregui Sagües
kontrataziorako zinegotzi delegatua